

HUHEZIKO (MU) Lehen Hezkuntzako Graduko ikasleen hizkuntza- eta kultura-identitatea

Asier Irizar Mezo eta Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
«Berrikuntza eta esku hartzea testuinguru kulturantz eta eleanitzetan»
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Mondragon Unibertsitatea

Ingurune urruti zein hurbilean gertatzen ari diren aldaketa sozioekonomiko nahiz kulturek eragin zuzena dute gure hizkuntza- eta kultura-identitatean. MU-HUHEZIk datozen ikasle etorri berrien euskararen erabilerari eta euskal kulturaren pertzepzioari jarri diegu arreta, ikasle berrien profil horietan sumatzen diren aldaketen arrazoiak identifikatzeko. Helburu horrekin diseinatu zen lau urteko proiektuan, ikasleek *EOSKOLA* liburua irakurri behar izan zuten 2017-2018 ikasturtean; ondoren, elkarrizketa bat izan zuten egilearekin, eta, azkenik, galdetegi bati erantzun behar izan zioten. Egindako lanketatik ateratako emaitzek adierazi digute ikasleen hizkuntza-erabilera zein kultura-pertzepzioa askotarikoak direla, eta horri erantzuteko hizkuntza-kompetentziaren zein curriculumaren berrikuspena egitea —euskal dimentsioari arreta gehiago jarritz— beharrezkoa dela.

GAKO-HITZAK: Ikasleak · Euskara eta erabilera · Euskal identitatea · Kultura-identitatea · Euskal dimentsioa.

Linguistic and Cultural Identity of the primary education degree students from HUHEZI (MU)

Socioeconomic and cultural changes taking place in the far and near environments have a direct impact on our language and cultural identity. We focused on the use of the Basque language by the new students at MU-HUHEZI, and on their perception of Basque culture, in order to identify the reasons for changes observed in the profiles of these new students. In a four-year project designed for this purpose, the students first read the book *EOSKOLA* during the 2017-2018 academic year. They then had an interview with the author and completed a questionnaire. The results indicate that the students' language use and cultural perceptions are diverse, and that in order to address this, it is necessary to review both language competence and the curriculum, with greater attention to the Basque dimension.

KEY WORDS: Students · Basque language and its use · Identity · Basque identity · Culture · Cultural identity · Basque dimension.

1. Sarrera¹

Aldaketa ugari bizi izan ditu garai bateko Irakasle Eskolak, gaur egun Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI), bere sorreratik (1976). Aldaketak goitik beherakoak izan dira gizartearen alor guztietan, eta, zer esanik ez, hezkuntzaren arloan, ikasleen profileen... Unibertsitate-giroko hezkuntza-eremuan dihardugu, euskal hezkuntza-sistamarako irakasleak prestatzen ditugu, eta, horrexegatik, hain zuzen, ikasle etorri berrien euskararen erabilerari eta euskal kulturaren pertzepzioari jarri diegu arreta. Uste baitugu garaia iritsi dela ikasle berrien profil horietan sumatzen diren aldaketen arrazoiak identifikatzeko, egokitzeko eta arestian aipatu diren gaien inguruko formulazio berritzaileak azalarazteko.

HUHEZI ez da salbuespena, kasu isolatua, baizik eta euskal gizartean azken urteetan gertatzen ari den fenomeno baten ondorioa. Are gehiago, kulturaren adierazpen nagusia den hizkuntzari dagokionez, Kike Amonarrizek (2017: 42-44) ere ez du bere bidegurutzea ezkututzen eta argi adierazten digu zer dugun:

Estamos en una encrucijada: o durante los próximos años aumenta notablemente el uso del euskera tanto a nivel cualitativo como cuantitativo, o, por el contrario, si el uso del euskera se estanca, la generación que nazca verá que sus padres y madres conocen la lengua, pero no la usan [...] como hoy ocurre en Irlanda, con el gaélico irlandés, lengua oficial de la república, dicho sea de paso.

Gazteen jarrera-aldaketa, hizkuntzarekiko atxikimenduari dagokionez, ez da berezkoa, eragindakoa baizik; fenomeno baten ondorioa, eta alde horretatik esanguratsuak dira Gurrutxagaren hitzak (2017). Izan ere, arlo sozioekonomikoari erreparatuz gero, Europan isla duen krisialdi ekonomikoak era nabarmenean eragin du euskal industria-ekoizpenean. Baina sektore horretan ez ezik, eraldaketa sozialean ere eragin du, batez ere belaunaldi berriengan; hots, gure iragan eta ondarearen «zama» jaso ez eta neurri batean erlatibizatzen ari direnengan, esateraino iraganetik jasotako ondare horrek ez duela etorkizunera begira euren bidea hipotekatu behar. Horrek guztiak erakusten digu, bada, identitate osteko Euskal Herri bat, edo identitate anitzeko Euskal Herri bat sortzen ari zaigula. Edo, agian, hemen da dagoeneko.

Are gehiago. Zeharo ohituta gaude identitate pluralaren kontzeptua erabiltzen gizarte multikulturaletan; hau da, mugaz kanpotik etorritako etorkinei buruz ari garenean beren-beregi aplikatzen da; baina, dagoeneko esan dezagun, Euskal Herrian jaio eta bizi direnen artean nabarmen hautematen da hizkuntza, kultura eta identitatea bizitzeko era askotarikoak daudela.

Fenomeno berri honek jatorria du, Baumanen esanetan (2011), gure artean ezarrita dagoen modernitate osteko bizitza-estrategiaren ardatz-ardatzean, zeinentzako helburua ez baita identitateak irautea, baizik eta larregi ez finkatzea.

Beraz, egokitu egin beharko gara egoera berri honetara. Baina egokitzeak ez du esan nahi etsi behar dugunik. Bestelakoa da geure buruari jarri diogun eginbeharra: gure euskal identitateak daukan bereizgarri edo oinarritzako printzipioetatik abiatuta,

1, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren dirulaguntza izan du proiektu honek.
UZTARO 119, 35-57 36 Bilbo, 2021eko urria-abendua

eta, bide batez, euskarari eta bertatik sortzen den euskal kulturari (edo oro har, kultura-ondareari) erreparatuta, hemendik urte batzuetarako baliagarria izan litekeen bide-orria diseinatzea. Norbanakoak bere testuinguruan. Eta guk, geurean, hau da, baitezpadakoa ez den irakaskuntza-hezkuntza eremuan, unibertsitatean.

Arestian aipatu dugun gizarte-mailako eraldaketaren haritik, HUHEZIn ere nabaria da azken urte hauetan ikasleen tipologian eta hizkuntza-portaeretan gertatutako aldaketa. Gero eta gaztelania gehiago entzuten da fakultatean, aldian-aldian egiten ditugun neurketek argi eta garbi adierazten dutenez; eta horixe da, hain zuzen, ikerketa-proiektu zabal batean txertaturiko lan honen abiapuntuko kezka nagusia. Baina kezka ez ezik, pizgarria ere bada, gaiari (arazoari) aurre egiteko bideak aurkitzeko pizgarria noski.

HUHEZiko ikasleen kultura eta hizkuntza identitateen bilakaeraren azterketa: horretan eragiteko gakoak izeneko proiektu zabal baten barruan dago artikulua honetan adierazi nahi duguna, eta gaur egungo diagnostiko sendoan oinarrituta, bere helburuetan euskaltasunak XXI. mendeko mendebaldar gizartearen dituen erronkei aurre egin nahi die, eta aldi berean estrategia berritzaileak martxan jartzeko hausnarketa nahiz proposamenak bideratu nahi ditu. Uste dugu, bide batez, HUHEZI bezalako gune batean gertatzen dena sakon aztertzea baliagarria dela beste testuinguru sozialetarako. Honen guztiaren pizgarri, berriz, Hezkuntzako Gradua bukatzen ari zen 4. mailako ikasle baten ahotsa, argi azaltzen duena zeren aurrean gauden:

Iruitzen zat gaur egun fakultate honetan gertatzea daola euskaldun bat ta euskeraz hitzeitan dun pertsona bat joko, lekuz kanpo sentitzie segun ze momentutan, (...) bueno jokuz kanpo ez, ze nik badakit zein naizen ta badakit zer daon hemen badakit beaiek daudela lekuz kanpo teoriyen baina situazio, egoera, momentu hortan... bai.

Pasarte horretan suma liteke euskaraz bizi den jendearen pertzepzioa zein den gure fakultatean. HUHEZiko hezkuntza-komunitatea osatzen dugun pertsona guztiak gara euskaldunak. Baina, hala ere, euskararen gune hegemonikoa izatetik urruti, eta ikasleak gogor salatzen du euskaraz ari denaren babes/prestigio falta. Ikasle hori gatazka linguistikoaren jakitun da.

Kezka horrek bultzatu gintuen 2016-2017ko ikasturteetik hasita, arestian aipatu dugun lau urteko ikerketa eta interbentzio ezberdinak irudikatuzera.

Artikulu honetan, dena den, aipatutako ikerketan 2017-18 ikasturtean Lehen Hezkuntzako Graduako bigarren mailan ziharduten ikasleen esanak izango dira aztergai, zehazki galdetegi bateko 22 ikasleren iritziak. Helburu nagusia, berriz, XXI. mendeko euskal hezitzaileak euskararen eta kultura-transmisioaren sustapenerako bere egoera pertsonalaz zein profesionalaz kontzientzia hartzea.

Hala, bada, «Ikastetxearen antolamendua eta hezkuntza» ikasgaiaren barruan, *EOSKOLA* liburua irakurri behar izan zuten; eta ondoren bi esku-hartze egin ziren: (1) 2018ko maiatzaren 8an Mitxelko Uranga fakultatera gonbidatu zuten ikasleek eta elkarrizketa/hausnarketa saioa antolatu zen, eta bertan euskara, euskal kultura eta identitatearen gaineko hausnarketaren harira, hezkuntzari eta hezitzailearen

profilari arreta jarri zitzaien. Ondoren, (2) ikasleek hezkuntza, irakasle-profila, euskara, euskal kultura eta identitatea gaien inguruan galdeketa bati erantzun behar izan zioten. Galdeketa horretatik jasotako 22 ikasleren iritziak dira, bada, hemen aztertuko direnak.

2. Marko teorikoa

Euskal kulturak eta identitateak aurrera egin nahi badute, badirudi malgutasuna eskatzen zaiola eremu politikotik euskal gizarteari; izan ere, errealitatea askotarikoa ei da. Alegia, izaera eta ulerkerak askotarikoen aurrean gaude. Hala ere, nahiz eta onartu kultura- eta identitate-adierazpen anitzek beren lekua izan behar dutela gure artean, aldi berean badakigu «gaur hemen euskaldun bizi ahal izateak dituen inplikazio linguistiko, kultural, nazional eta politikoak barneratu gabe dauzkan belaunaldiak ari garela sortzen» (Odriozola, 2017: 56).


Eusko Ikaskuntzak (2006), euskal nortasunaz eta kulturaz egindako ikerketan, diosku Euskal Herriko gizartean kulturaren eta nortasunaren oso adiera desberdinak daudela gaur egun; adiera desberdinak bai edukiz eta bai esanahiz ere. Are gehiago, zeharo erroturik omen dago euskal komunitatean euskal herritar ez sentitzearen hainbat elementu kultural eta identitario. Hala, nahiz eta euskaltasunaren baitan euskara izan erreferentea, hizkuntza goraiatzeko nahiz gaitzesteko edo axolagabekeria adierazteko ere jarrerak ikusten ditugu. Are gordinago jartzen da egoera, gehiengoaren ustez euskal kultura eta identitatea (eta haien etorkizuna) krisian daudela hautematen dugunean. Beraz, egoera desorekatu honen aurrean, ezinbestean, eta elkarbizitza bermatzeko, adostasuna bilatu beharrean gaude, eta, beraz, behartuta gaude kulturari, identitateari eta kultura-identitateari hezkuntza-markoa jartzera. Helburua ez da haien artean lehentasunik ezartzea, baizik eta hiru aldagai horien garrantzia azpimarratzea eta beraien eraikuntzan (alegia, euskal identitatearen eraikuntzan) hezkuntzak eta curriculumak duten paperaz ere hausnartzea.

2.1. Kultura, transmisioa eta curriculumak

Espazio eta denbora jakin batean herri batek pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modua da kultura. Horrenbestez, denok, pertsona orok, bizi garen bitartean, kultura transmititzen dugu, nahiz eta zeregin horretan batzuetan hartzaile eta besteetan emaile funtzioa betetzen dugun. Alegia, hartu-eman edota elkarrekintza bat aldi berean sortzen dugu transmisio horretan. Esate baterako, horixe egiten dute gurasoek seme-alabak hezten dituztenean; horren bitartez beren balioak transmititzen saiatzen dira, eta seme-alabak hazten doazen heinean bereganatzen eta barneratzen dituztenak. Eta kultura-transmisioan gurasoek, eta, ondoren, ikusiko dugun bezala, irakasleok, hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) gauza bera egiten dugu, eta horren bitartez hizkuntza hori identitatearekin lotzen dugu (Uriarte, 2020).

Gerard Hofstedek (2012) adierazten digu ez dagoela ukitzen den «kultura»rik. Ukiezina dela. Gure irudimenaren produktua besterik ez dela bera, eta mundu errealeko fenomenoak aurreikusi eta ulertzeko baliagarriak direnean soilik iruditzen zaigula baliagarria.

Ildo beretik, hausnartzen duenean kulturak nola konfiguratzeko duen gizabana-koaren garapena eta kolektibitateen kalitate etiko eta soziala, kultura, oroimenean metatzen dugunaren informazioa baino haratago doala esaten digu, eta era askotara ere adieraz daitekeela. Tipularen metafora erabiltzen du kulturaren adierazpenak adierazteko (ikus 1. irudia). Esan gabe doa, lau adierazpenek «ikurrek, erritualek, heroiek, eta ezkutuko balioek» osatzen dutela kultura. Ezaugarri ditzagun:



1. irudia. Kulturaren adierazpenak.

Iturria: Egileek egina, G. Hofstede (2012: 414) emandako datuetatik abiatuta.

Kulturaren azaleko geruza izango litzateke (1) banderek, ohiturek, modek, irudiek, objektuek... osatzen dutena; hots, kultura bera partekatzen dutenen ikurrek. Gero datoz, sakonago, (2) gure heroiak, hots, bizirik edo hilda dauden pertsonaiak, errealak edo irudipenezkoak, kultura horretan balioesten diren ezaugarriak dituztenak², eta, horregatik, kolektiboarentzat eredugarriak eta imitagarriak bihurtzen direnak. Hirugarren, errituak (sozialak eta erlijiosoak), arauak, historiak eta meta-kontaktak datoz, maite eta gorroto ditugunak, baina kulturaren ezinbestean ere egon beharrekoak (3); eta, tipularen bihotzean, oster, (4) gure identitatea agertzen da, mundu-ikusker, gure arteko elkar ulertzea sarri baldintzatuz, ezkutuko balio sakonenak, zama emozional handia dutenak, nor garen zehazten duten balioak, hain zuzen ere. Aldi berean, identitatea gure sustraiak ere badira, eta tokiko pertenezia sorrarazten digu, talde batena, kultura, erlijio edo zibilizazio batena.

Arestian aipatutako ikurrak, heroiak eta kontakizunak kultura horren praktikatzat hartzen dira; agerikoak diren praktikak alegia, kanpoko behatzaile batentzat ikusgarria izan daitekeena, nahiz eta bere kultura-esanahia ez hain begi-bistakoa izan sarri, lotuta baitago kultura horren parte-hartzaileek nola interpretatzen dituzten praktika horiek.

Guk geuk, hezitzaileok, berriz, hezten dugunean tipularen sakontasun horretara eraman nahi izaten ditugu ikasleak, eta, aldi berean, bizitzaren eta munduaren ikuskera zabalena, sakonena eta etikarik arduratsuen izan dezatela bilatzen dugu.

² Gaur egun irudiaren gizartean bizi garen honetan, heroiak edo imitagarriak diren gizon-emakumeen «presiopean» bizi gara.

Jakin badakigu, oster, sakontasun horretara iristeko, tipularen geruza batetik bestera pasatu behar dugula bihotzera ailegatzeko. Baina, horretarako, bitartekariak jarri behar dira, besteak beste berariaz baliagarriak izan litezkeen curriculumaren planteamendu humanistikoagoak ezarriz, eta Carmen Pellicerrek (2019: 20) dioen bezala, horren bitartez ikasi «no solo a ser cultos sino a ser sabios, a comprendernos a nosotros mismos, a sentirnos parte de algo más grande, a aprender de nuestro pasado y superarlo».

Eta halaxe, eta beti, irakaskuntzaren funtzioa benetan soziala dela ulertuta eta onartuta, antzematen dugu ikasleak, bizitzan hazten doan bitartean, kultura jakin batean hazteko ere aukera paregabea baduela; alegia, kultura jakin baten transmisioan eragiten dugula irakasleok. Edo beste era batean esanda, belaunaldi bat (gurasoak edo irakasleak) saiatzen dela transmititzen hainbat ohitura eta ikusmolde, uste-sinesmen eta jokabide hurrengo belaunaldiari (seme-alabei edo ikasleei). Beraz, ezin uka, hezkuntzak egoera fisiko, intelektual eta moral jakin batzuk pizteko eta garatzeko duen berebiziko garrantzia, horren bitartez ikasle orok gizartean heldutasun-maila egokiarekin integratuak izan daitezen (Lauzurika, 2016).

Esandakoarekin bat, egoki datorkigu Delorsek (1996: 51), UNESCOko Hezkuntzako Nazioarteko Batzordeak aurkeztutako txostenean, hezkuntzaren eginkizun nagusiaz esandakoa: «Gizartekoitasunezko dimentsioan uztartuz, gizabanakoaren garapena bideratzea da. Hezkuntza kulturen eta balioen eramailea da, gizarteratzeko bidea eta egitasmo bateratua eraikitzeke gunea». Eta aipatutako «hezkuntzaren eginkizun nagusia» bete ahal izatea oinarritzko giza eskubidea da. Eta hori, UNESCOk berak aitortzen du Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 28. Artikuluan (Diputació de Barcelona, 1998:24).

Hizkuntza-komunitate orok du bere kideek beren kultura ondarearen ezagutza sakona (historia eta geografia, literatura eta norberaren kulturaren beste adierazpen batzuk) eta ezagutu nahi duten beste edozein kultura ahalik eta gehien menderatzea ahalbidetuko duen hezkuntzarako eskubidea.

Familiak, beraz, eta nazio baten gizarte-herentzia gisa, bere baitan txertatzen du kultura, eta, pixkanaka, ondorengoei transmititzen die. Familiak bermatzen du kultura-herentziaren transmisioa, belaunaldiz belaunaldi, prozesu erraz baten bidez: sozializazioa edo akulturazioa (Ruiz Ordoñez, 2004).

Hala, bada, familiek sustaturiko transmisio soziokultural horri beste eragile asko gehitu behar bazaizkio ere, giza elkarrekintza horretan, eragile sozial, politiko eta kulturalen eraginez, baina, transmisio horren etena nabaria da azken garaian; izan ere, botere handiagoa duten eragile kulturelek hankaz gora jarri digute dimentsio soziokultural euskalduna, eta hala uste dugu guk ere: «Leku eta giro batzuetan bizi-endar sendoa ageri du gaur euskaldungoak; beste batzuetan, aldiz, erdal erasan gogorra jasan du eta euskaltasunaren ezaugarriak ahuldurik ditu; beste zenbait kasutan, azkenik, ia oinatz hutsaletara mugatua dago behinolako bere euskaltasun ukaezin hura» (Bilbao, Erriondo, Garagorri, Idiazabal eta Iztueta, 2003: 5).

Hezkuntzan dihardugunontzat, beraz, curriculum ofizial batean islatzen dena izan daiteke kultura. Hala ere, definizio hori mugatzailea ere izan daiteke, bai

baitirudi ez dagoela beste aukerarik curriculumari berari jarraitzea baino, ikuspegi soziokulturalagoak dituzten beste curriculum batzuk, adibidez, baztertuta. Izan ere, zer ikuspegi soziokultural hartzen duen erreferente gisa curriculum batek, ikasleek zailtasunak izan ditzakete adierazteko zer testuinguru soziokulturaletan bizi diren, eta, horren ondorioz, baita beren identitatea hautemateko ere. Esan nahi baita, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla ikusten dugu. Alde batetik, gizabanakoarena, era intuitiboan eta afektiboan lortzen duguna, eta gure ingurune hurbilenarekin harremanak eginez lortzen duguna. Bestetik, identitate kolektiboa, nahiz eta berezko osagarriak ere izan, aberastu egiten dena, adibidez, ikasketen bidez, eskolak eman dezakeen curriculum-tratamendu sistematiko eta espezifikoren bidez (Ramirez de Okariz, 2014).

Curriculumaz diharduenean, Begoña Bilbaok (2003) diosku eskolan garatuko den aukera kulturala ere badela bera. Alegia, transmititu beharreko ezagutza hautatzen den neurrian, curriculumaren bidez ere hautu kultural bat egiten dela; beraz, curriculumak izugarriko garrantzia du kulturaren transmisioan ere, eta, transmititzen dituen kultura-adierazpenen bidez, hezkuntza formalaren garaian eraikitze-prozesuan diren nortasunak baldintzatzen ditu.

2.2. Identitatea

Identitate kontzeptua modan jarri da, batik bat globalizazioaren eta pentsamendu bakarraren eraginez nolabaiteko identitate desberdina edo berezia aldarrikatzen denean (Castells, 1999; Gurrutxaga, 2017). Nonbait, ertz askotako kontzeptua da, Ramírezek (1996: 112) dioskun bezala: «Un constructo negociado que resulta de las múltiples posiciones del sujeto respecto a las condiciones sociales, culturales y políticas en las que se inscribe». Horiek horrela, identitate bakarrak ez, baizik eta identitateez hitz egin beharko genuke agian; alegia, «askotariko identitateak, gainjarritakoak, osagarriak, kontraesankorrak» (Díaz de Balerdi, 2008:112).

Ezkurdiak (2004: 33), Castellsek aipatzen duenari jarraituta, adierazten digu identitatea lekuan eta denboran zehar eraikitzen dela eta hala nortasun indibiduala eta haren identitate soziokulturala eraikitzen dugula, bi eratan: sinkronikoan, gizatalde baten parte izanik, eta, diakronikoan, memoria kolektibo baten jabe ere bagarelako, «eta hala betetzen du pertsonak bere burua zerbaitekin identifikatzeko duen ezinbesteko beharrezana».

Identitatea, baina, gizabanakoak era indibidualean eta kolektiboan bere burua onartzen duen erreferente multzotzat hartzen da. Izan ere, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla ikusten dugu. Alde batetik, gizabanakoarena, era intuitiboan eta afektiboan zein gure ingurune hurbilenarekin harremanak eginez lortzen duguna. Bestetik, identitate kolektiboa, nahiz eta berezko osagarriak ere izan, aberastu egiten dena, adibidez, ikasketen bidez, eskolak eman dezakeen curriculum-tratamendu sistematiko eta espezifikoren bidez... Horrek aukera ematen du, gainera, gertukotik abiatu bai baina gertukoena ere gaintuz beste errealitate ezberdin eta ezezagun batzuekin ere bat egiteko; horren bitartez, balio zabalagoak, unibertsalagoak lantzen eta lortzen dira. Alegia, ezagutzen dugun lokala eta nazionala, eta berriak, nazioaren gainetik daudenak eta globalak. Ez dugu ahaztu

behar, baina, identitate kolektiboaren formazio-prozesua, tokitik hasi eta globalera doana, sarritan istilu-iturri ere badela (Valverde, Sequeiros eta Loma, 2001).

Identitate horretan eragitea da, beraz, gakoa. Horretara iristeko, dena den, abiapuntua ere badugu Bordeleko Ikasketa Politikoen Institutuan Zientzia Politikoetako irakasle izandako Christian Coulon (2005) adituak esandakoa. Berak, gaurko identitatearen nondik norakoa ulertu ahal izateko, bost alderdiri erreparatu omen zion:

- 1) Modernitateak (edo Modernitate osteak) ez ditu atzerakoitzat jo atxikimendu kulturalak eta etnikoak, nahiz eta teoria aurrerakoiak beste zerbait adierazi. Eraldaketa ekonomiko, sozial eta politikoez ez dute sentimendu hori ito. Beraz, honek adierazi beharko luke, bada, modernitatearen ondorio bat dela atxikimendua, atzerapausoa baino gehiago. Identitatea parte-hartze sentimendu bezala ulertuta, aurrerapenarekin betegarria da; baita, beraz, modernitatearekin, halabeharrez sentimendu unibertsalarekin ere. Hori bai, identitate ireki bat izan beharko luke, ez ideologia baztertzaila batean oinarrituta.
- 2) Mundializazioa, halaber, prozesu kontrajarria eta paradoxikoa da, gizartearen homogeneizazioa dakarrena, baina baita norberarena dena suspertzea dakarrena, adituek globalizazioa izenez ulertu eta izendatzen dutena hain zuen. Esan nahi baita globalizazioa paradoxikoki tokiko kultura-identitatearen birdefinizioaren iturburua dela. Gainera, kultura bat tradizioan ixtea historian zehar sortutako bertsio egokitzailerei (mestizajea) uko egitea da, eta ghettoak sorraraztea dakar gainera.
- 3) Biztanleriaren mugimenduek eta informazio- eta komunikazio-teknologiek laguntzen diote, noski, mestizaje horri, baina historian zehar mestizajearen fenomeno oso ohikoa izan da. Dagoeneko gainera, baztertutzat eman daitezke bloke itxiak osatutako kulturak. Adibidez, horra hor kolonialismo-prozesu historiko guztia eta horrek sorrarazi duen bitarteko identitatea. Izan ere, kanpotik etorri denari aurre eginez, norberak bere kultura moldatu behar izan du. Alegia, dagoeneko kulturak ez daude itxita lurralde batean, administrazio-gune bati atxikita (euskaldunak diasporan), baizik eta gero eta gehiago hauteman daitezke identitate desberdinen identitate-produktu berriak, esperientzia desberdinetatik jasotakoak.
- 4) Gero eta gehiago ematen dira identitateak «kartara», gizabanakoaren askatasunarekin lotuak daudenak. Komunitatea ez da multzo kultural tradizional bat, aspalditik datorrena hain zuzen, baizik eta subjektu autonomoen aukera bat da.
- 5) Hala ere, identitate itxiek hauskorrak jarraitzen dute izaten. Hizkuntzen edo kulturen galerei ekarrita, UNESCOk 2010ean kaleratutako hizkuntzen atlasak³ albiste ilun asko erakusten dizkigu, baina euskararen kasuan

3. «En esta edición figura una lista de 2.500 lenguas (dentro de las cuales 230 extintas desde el decenio de 1950). Estas cifras se acercan a la estimación comúnmente admitida, que gira en torno a unas 3.000 lenguas amenazadas en el mundo entero». Iturria: <<http://www.unesco.org/new/es/unesco/themes/languages-and-multilingualism/endangered-languages/atlas-of-languages-in-danger/>> (Kontsulta: 2020/04/07).

abantaila bat hautematen du atlas horrek; izan ere, 2001eko edizioan arriskuan jartzen zuen gure hizkuntza, eta orain, aldiz, ahultzat kalifikatzen du.

Badirudi, bada, globalizazioak lortu duela identitatea bera beste era batean ulertzea, nahiz eta euskaldunok alde positiboak eta negatiboak ere ikusi (Baxok eta beste, 2006):

1. Positiboak. Ezagutza- eta komunikazio-bidea zabaltzen da; kulturen arteko harremana eta nahasketa; kanpora begira irekiera eta difusioa.
2. Negatiboa. Homogeneizazio kulturala; bizitzaren kultura, bizi-estiloen galera; mesfidantza; globalizazioaren, ekonomiaren eta kontsumismoaren arteko loturak.

Identitatea giza izaerarekin loturiko berezko fenomeno da. Esan nahi da, pertsonak berezkoa duen nortasunarekin batera, genetikoki bakoitzak propio garatzen duela. Badaude, baina, beste bi identitate, soziala eta kulturala, eragile askoren bitartez eraikitzen direnak.

Eta prozesu horretan, hezkuntzak eta, zehatzago, curriculumak zer dute egiteko? Zerbait garrantzitsua behintzat, bai. Izan ere, zergatik tematzen dira, bestela, horrenbeste estatuak hezkuntzaren gaineko kontrolean? Argi dago eskola bihurtu dela aspaldidanik identitatea suspertzeko sistema, eta horretarako curriculumaz jabetu dela. Garai batean ezagutzen transmisioaz berariaz aukeratutako eduki ezberdinen bitartez; egun, ostera, kompetentzien bitartez, horretarako identitatearen eraikuntzan berebiziko garrantzia dutenak sustatuz.

2.3. Hizkuntza- eta kultura-identitatea

Zerk batzen gaitu komunitate gisa? Zeintzuk dira, baleude, gure kultura erreferente komunak? Zer da, bada, euskal kultura? Posible al da euskararik gabeko euskal identitaterik, euskal kulturarik? Hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanak sakon eta zabal landu izan ditu Iztuetak (2015: 295-296) eta eztabaidaren beharra aldarrikatzen du, «euskal kultura posible al da euskararik gabe?» galderatik abiatu ordez, «euskara posible al da euskal kulturari buruzko diskurtso jakin bat izan gabe?» galderatik abiatuta.

Hizkuntzaren eta ideologiaren arteko hartu-emana argitzen saiatu nahian, Uriartek (2020) adierazten digu norbanako bakoitzak (edo gizatalde bakoitzak) hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen duela bere identitatea, eta hausnarketa interesgarria hau partekatzen du: «Identitatea ere norbanako nortasuna lotuta dagoenez, pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Bestea existitzen delako, berarekiko egiten duen konparazioaren arabera definitzen du hiztunak bere burua eta, beraz, bere identitatea». Hala, uste dugu euskara eta kultura ere identitateari estu lotuta daudela. Biek, gainera, lotura hertsia dute eraikitze sozial eta pertsonalarekin. Izan ere, Correack dioskun bezala (2003), sozializazio-prozesua prozesu indibiduala ere bada. Pertsona izaki sozial, politiko eta kultural gisa eratzen den bitartean, pertsona indibidual gisa eta bakarra balitz bezala eraikitzen ari delako bere identitate propioa ere.

Antropologiak denboran zehar iraun duten «objektuak» hartzen ditu ondareztat. Objektu horiek —gure kasuan hizkuntza eta bere baitan sortutako kulturak ere— esangura baten adierazleak izan dira; zama sinboliko handia izaten dute, eta komunitate bat objektu horiek integratzen saiatzen da, ondareztat hartuta. Ondarearen eta komunitatearen arteko harreman horrek giza eraikuntza bat dakar, eta komunitatea bera «aske da herentzia onartzeko edo errefusatzeko, dena edota zati bat. Beraz, ez da nahiko transmititzea; beharrezkoa da herentzia hori jasotzen duenak onartzea» (Allieu-Mary-Frydman, 2003: 48-54).

Esan beharrik ez dago gure gizartean gertatu den beste eraldaketa bat aniztasun kulturalarekin loturikoa dela, eta ezin uka egoera horrek gure euskal kulturaren, gure identitatearen biziraupenarekin loturiko kezak sortu ez dituela. Gaur, esate baterako, gizarte konplexua eta askotarikoa da gurea. Identitate etniko eta kultural desberdinak bizi gara bata bestearen alboan. Elkarren ondoan bizi gara frantsesez pentsatzen dutenak, euskaraz pentsatzen dugunok eta espainolez pentsatzen dutenak. Mundua, Euskal Herria bera, ikusteko eta gauzak ulertzeko eta aniztasunak sortzen dituen zalantzak eta arazoak konpontzeko irtenbide desberdinak azaleratzen ditu. Gainera, globalizazioarekin, kanpokoak diren eragin-fluxuak gero eta nabarmenagoak dira, eta konplexutasun eta aniztasun hori areagotu egin da, horrekin batera, handiagotu egin da gure gizartearen konplexutasuna, eta eragin zuzena izaten ari da gure hizkuntzan eta kulturaren, gure identitatean.

Beraz, identitatea konfiantza gutxiagoko testuinguruan eraiki behar da gaur egun, garai bateko gizarte tradizionaletik urrun geratzen dena. Izan ere, ahulduta daude garai bateko giza esperientziak eraginda sortutako identitate-mekanismoak, eta garai bateko erreferente klasiko horiek huts eginda, identitatea eraikitzeo iturri berriak ahulak dira. Azkarragak dioskun bezala (2010: 56-58): «Gaur inoiz baino gehiago, identitatea norberak bere kasa eraiki behar du eta, gainera, lehen baino material makalagoak erabilita. Identitatea eraikitzea gizabanakoari dagokion zeregina da [...] ezagutzaren gizartean bizitzeak gehiago hausnartzea eskatzen du [...] etengabe nola eta zer norabidetan garatu nahi dugun gure bizitza».

Ez dugu gauza berririk esaten euskal kulturaren identitatearen inguruan dauden eztabaidak pil-pilean daudela diogunean; alegia, nola adierazi behar den bera, zer hizkuntzatan eta zer balio islatu beharko lukeen. Ezagunak dira Txillardegiren (1984) eta Zalloren (2006) arteko iritzi kontrajarriak honen inguruan ere; batak euskal kultura euskaraz baino ez dela posible, eta besteak, berriz, baita frantsesez nahiz espainolez ere.

Zalok diosku Euskal Herriko herritarren kultura dela euskal kultura, eta EHko herritarren artean euskaraz ez ezik espainolez eta frantsesez ere egiten dela. Txillardegik, ostera, zerbaitek bereizten bagaitu gainerako herrietatik euskal kultura dela, euskara dela ezaugarri kultural bakarra Mendebaldeko beste herrietatik bereizten gaituena; beraz, euskaraz adierazitako hori baino ezin dela izan euskal kultura, geure kultura (Iztueta, 2017).

Beraz, euskal kulturaren barruan garai batetik datozkigun eztabaidak eta gatazkak, eta testuinguruak testuinguru noizbehinka indartzen direnak hautematen dira. Eta agian horrela izaten jarraituko du, identitatearen kontzeptuari eta senari atxikia dagoelako.

Euskal kultura agertoki berri baten kokatzen dela gaur ukatzerik ere ez dago; identitate ostekoa (Gurrutxaga, 2017). «Berri» hitzak ez du esan nahi gailurra jo dugunik euskararen etorkizuna ziurtatzen. Izan ere, euskal erakundeak sortu eta garatu diren heinean euskararekiko jarritako espektatibak bete badira ere, gaur beste erronka berri batzuk (euskararen erabileran, bereziki) agertu dira.

Hala ere, nahiz eta euskal identitate eta euskararen gaiak jarraitu izaten eztabaidagaia, badirudi garai batetik hona gizartean lausotzen ari dela auzia, besteak beste ongizate eta balio berrien aldeko joerak, eta ez hainbeste identitate-izaerarekin loturikoak, sustatzen ari garelako. Alegia, euskal gizartearen osotasunaren baitan bi gizarte mota elkarrekintzan arituko balira bezala:

Estamos ante la perspectiva, cómo sugiere Ch. Taylor, de que se acepte que la diversidad y la diferencia son nuevas formas de estar en el mundo, pero en el de lealtades múltiples. Las identidades son diversas. La imagen de la cultura híbrida es más real que nunca (Gurrutxaga, 2017: 199).

Kultura eta identitate askotariko eta nahasi hau hartuz, lurzorua eta ganga metaforak erabiliz, etorkizuna enfokatzen saiatzen da aipatu dugun Gurrutxaga soziologoa (2017). Hala, lurzoruak gure ongizatea adierazten du, gure ondasun materialekin bat egiten du. Ganga, berriz, herri bezala daukagun aberastasun sinbolikoa eta kulturalaren irudia da; nor garen, nora jo nahi dugun, zer nahi dugun eta zertarako azaltzeko beharrezkoa duguna. Gure ohiturak, arauak, balioak... dira. Beraz, alde batetik, ongizatea eta, bestetik, identitatea, lurzorua eta ganga elkarrekintzan alegia. Biak nola kudeatu izango dira Eskoriatzako HUHEZIn ere diseinatzen ari garen mapa horren aldagai nagusiak.

Hala, bada, identitate asko dituzten herritarrak konbinatzea bada gakoa, horretarako kohesiorako erremintak eraiki beharko ditugu, alde bateko zein besteko muturrak baztertuz. Baina hori lortu ahal izango da tokiko identitatea eta hezkuntza zabala (kosmopolitagoa) eraikitzen bada. Esan nahi da beharrezkoa dugula elkarrekin bizi izaten ikastea, eta munduko hiritarraz gain gure tokiko identitatea eta ondarea ere kontserbatzea. Eta hori guztia hezkuntzara aplikatuz gero, HUHEZIn, eskola aniztasun demokratiko eta kulturen arteko bizikidetzak garatuko den tokizat hartu (Calaf, 2009).

Gizarte Zientzien jakintza-arloan aritzen garenontzat ere, iruditzen zaigu bata (hizkuntza) zein bestea (kultura) direla identitatearen adierazpen jatorrenak, eta batzaz zein besteaz jabetuz erraztu genezakeela gizabanakok hiri-identitate arduratsu bat (pertsonala, soziala eta kulturala) eratzea nahiz errespetatzea, baina Ibai Iztuetak (2017) dioskun bezala, hirurak maila berean.

Kontuak kontu, eta XXI. mendearen lehendabiziko bi hamarkada hauetan euskal gizarteak izandako aldaketak lekuko, inoiz baino beharrezkoa ikusten dugu «nor izateko» (identitatea) gure kulturen oinarritutako curriculum ofizial bat, kultura-erreferente propioetan oinarrituko den euskal curriculum bat, partikularretik unibertsalera eta unibertsaletik partikularrera joan-etorrian, euskararen baitan artikulatuko dena, eta kultura-sustrai sakonak dituen (Lauzurika, 2016).

3. *Eoskola*

Zergatik eta zertarako liburu hau irakurri etxean, gelan? Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako «Ikastetxearen antolamendua eta hezkuntza» materialen lortu nahi diren hainbat helburu eta landu nahi diren edukiekin bat datorren liburu delako, hots, bere ataletan XXI. mendeko euskal hezitzaileak euskararen eta kultura-transmisioaren sustapenerako bere egoera pertsonalaz zein profesionalaz kontzientzia hartzeko gaiak jorratzen direlako. Baina ez da justifikazio bakarra. Gainera, egileak urteetako hezkuntza-eskarmentua izateaz gain, aipatutako ikasleen hizkuntza-profilarekin ondo zetorren euskaraz idatzitako liburu ere bazelako. Aldi berean euskara-maila apala bezain ulergarria, eta, nola ez, orri kopuruaz ez oso liburu «lodia». Hori gutxi ez eta liburuaren egilearen eta ikasleen arteko elkarrizketa dialogiko bat HUHEZIn antolatzeko aukera ematen zuelako, ondoren hala gertatu zen bezala. Horrek guztiak eragina izan zuen ikasleengan eta irakurketa eta elkarrizketan parte hartutakoen kopurua oso handia izan zen, sarri ez bezala.



2. irudia. *EOSKOLA* liburuaren egilearekin elkarrizketa dialogikoa egiten (2018/05/15).

Iturria: Egileek egina.

Mitxelko Urangak (2017), *EOSKOLA Heziketa Hipermoderno*a liburuan, gaurko gizartearen eta hezkuntzaren erradiografia eskaintzen digu, bataren zein bestearen ajeak ere identifikatzen ditu, eta beharbada aurrera begira dauzkagun erronkak adierazi ere bai. Sentikorrak diren gaiak ukitzen ditu: hezkuntza, irakasleak, eskolak,

euskara, euskal kultura, transmisioa, belaunaldiak, gurasoak... Guztietatik, ideia batek —militantziaren beharrak— piztu zuen batez ere kezka eta eztabaida ikasleen artean. Izan ere, aitortu beharra dugu heziketaren militanteak garela irakasleok; ez langileak; ez soldatapekoak soilik. Aldi berean, desideologizazioa ere nabarmena da kolektiboan. Horrek esan nahi du «bokaziozko militante itsuak» izan behar dugula. Disidentziarik gabeko militanteak ez ote dira, berez, sistema baten sustatzaileak? Ez ote da hori momentu batean norberaren kontra joango? Ez ote da kolektibo akritiko bat sortuko, besteak beste lanpostua galtzeko beldurrez? Galdera, baieztapen eta arestian aipatutako antzerako beste ideia asko nabarmentzen dira liburuan. Beraz, irakasleok zein ikasleok irakurri beharrekoa.

Liburuan bertan ere euskararen ezagutzaz eta erabileraz nahiz euskal kulturaren transmisioaz irakasle batek izan beharko lukeen kontzientziaz ere hitz egiten da. Beraz, gure ikasleek (irakasle izateko bigarren mailako Haur eta Lehen Hezkuntzakoek) era dialogikoan irakurri beharreko liburua iruditu zitzaigun. Are gehiago, liburuaren egilearekin solasaldia ere antolatu zen ikasleekin (2018ko maiatzaren 8an egina), eta baita adierazitako gaien inguruan eztabaida sortu ere.

Liburuaren ataletatik, baina, kulturaren transmisioaz ari den atalari erreparatu genion bereziki. Bertan, Margaret Mead antropologoaren ideiarekin bat eginez, Mitxelko Urangak (2017) diosku kultura era askotara transmititu ohi dela. Alegia, transmisioa bidera litekeela belaunez belaun (generazio-izaera duena), eta halakoetan, aitona-amonen belaunaldia dela jakintsuena (*kultura postfiguratiboa*). Modernitatean, kultura nagusiki postfiguratiboa bizi izan genuen. Alegia, gurasoek ume eta gazteak hezten zituzten, aitona-amonak eurak hezi zituzten modu berean, eta horrela jarraitutasuna bermatuta geratzen zen; baina transmisioa izan daitekeela belaunaldi bereko kideen artekoa (*kultura kofiguratiboa*) ere esaten digu, edo, hirugarren aldaera bat ere badela, alegia, haur eta gazteen belaunaldiak buru duena eta zaharragoak direnen belaunaldira nekez iristen dena (*kultura aurrefiguratiboa*).

Beste era batean esanda, adinduak gizartetik desagertu egin dira; autoritatea galdu dute, gurasoek bezala. Ume eta gazteak subiranoak dira egun, eta, hortaz, ez gara kultura postfiguratiboan bizi, ez nagusiki behintzat. Gurea, nagusiki, kultura kofiguratiboa da; hots, bertikaltasunak horizontaltasunari utzi dio bidea, eta ume eta gazteek elkarrekin eta elkarrengandik ikasten omen dute. Aldaketa nabarmena dago hemen, ez dagoela transmisioan jarraitutasunik, aldaketa eta apurketa baizik (Ramirez de Okariz, 2018).

Esandakoa eskolara egokituz gero, honelakoa da irudia:

- Eskola postfiguratiboa: helduek hezten dituzte gazteak.
- Eskola kofiguratiboa: euren artean hezten dira gazteak.
- Eskola aurrefiguratiboa: gazteak hasten dira hezten nagusiak.

Hala ere, eta testuinguru hori guztia baliatuta, ikasle bakoitzaren iritziak jaso nahi izan genituen.

4. Metodologia

Ikerketa honetan erabili dugun metodologia kualitatiboa izan da, eta galdetegian nahiz eztabaida-taldeetan oinarritu bada ere (Mckernan, 1999), artikulu honetan, dena den, ikasleei egindako galderetatik jasotako erantzunetan oinarrituko gara. Izan ere, Mitxelko Urangak idatzitako liburuaren irakurketarekin eta ondoren izandako solasaldiarekin azaleratutako kezka horiek norbanakoarentzat nolakoak ziren ere jakin nahi izan genuen, eta horretarako euskararen eta euskal kulturaren gaien inguruko zortzi galdera zeuzkan galdetegi ireki bat eman zitzaien ikasleei.

4.1. Helburuak: orokorra eta espezifikoak

Helburu nagusia, berriz, XXI. mendeko euskal hezitzaileak euskararen eta kultura-transmisioaren sustapenerako bere egoera pertsonalaz zein profesionalaz kontzientzia hartzea.

Helburu espezifikoak, aldiz, lau, bat egingo dutenak ikasleen artean banatuko den zortzi galderako galdetegiarekin:

1. Euskal kulturaren transmisioa nola hautematen duten gure ikasleek eta nolakoak izan den transmisio hori haien inguru hurbilenean, ahuluneak eta indarguneak identifikatuz.
2. Hezkuntza-sisteman nola hautematen duten euskal transmisioa; egindako ikasketetan, euskal kulturaren transmisioan norbanakoaren egoera eta erronkak zeintzuk diren identifikatuz, batez ere euskararen eta euskal kulturaren transmisio horretan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateak nola eragin duen ere hausnartuz.
3. Norbanakoak nola ikusten duen transmisio horretan bere burua, eta etorkizunari begira euskal kulturaren transmisioak nahi besteko estrategia eta baliabide ote dituen hausnartzea.
4. Euskara eta euskal kulturarekiko izan lezaketen ikuspegia atzerakoia ala aurrerakoia den hautematea.

4.2. Parte-hartzaileen taldekatzeak

Sarreran esan dugun bezala, 2016-2017 ikasturtean hasi zen lau urteko ikerketa hau, eta, orduan, euskararen ezagutzaz eta erabileraz zein ideologiaz tipologia ezberdinak egon zitezkeela antzemanda, lehenengo mailako ikasleen artean, euskararen ezagutzaz eta erabileraz gain, identitateaz ere galdetu zitzaien. Hemendik sortutako hizkuntza-profilak erabiliko ziren lagin gisa ondorengo urteetako ikerketaren barruan egindako ekintzen lanketarako, bide batez *EOSKOLA* liburuarekin egindakoa ere. Izan ere, badakigu euskararen erabileran eragiten duen faktore nagusietako bat euskaraz egiteko erraztasuna dela (Zalbide, 2016), eta hizkuntza-profilak definitzeko orduan kontuan izan dugun aldagai nagusia izan da zer hizkuntzatan sentitzen diren erosoago gure ikasleak (euskaraz, gaztelaniaz, euskaraz zein gaztelaniaz berdin). Erosotasunaz gain, ondorengo itemetan emandako erantzunak ere kontuan hartu ditugu: a) gurasoekin zer hizkuntzatan

egiten duten; b) lagunekin zer hizkuntzatan egiten duten; c) Whatsappen zer hizkuntza darabilten; d) ezezagunekin zer hizkuntzatan egiten duten; e) euskaldun izateko euskara jakitea beharrezkoa den; f) beren burua nola sentitzen duten (euskal herritar/espainiar); eta, g) euskal kultura bakarrik euskaraz egiten dena ote den.

Item horietako puntuazioen arabera, hiru hizkuntza-profil sortu genituen:

1. taula. Hizkuntza-profila (2016-2017).

HIZKUNTZA-PROFILA	EZAUGARRIAK	IKASLEAK GUZTIRA
Euskal elebiduna euskal dimentsioan engeiatua	Euskaraz gaztelaniaz baino erosoago aritzen zirenak, guraso, lagun, Whatsappen eta ezezagunekin beti euskaraz aritzen zirenak, euskalduna izateko euskara jakitea beharrezko dela uste zutenak, beren burua euskal herritar soilik sentitzen zutenak eta euskal kultura euskaraz eginikoa dela uste zutenak	53
Erdal elebiduna euskal dimentsioan engeiatugabea	Euskaraz gaztelaniaz bezain eroso sentitzen zirenak, guraso, lagun, Whatsappen eta ezezagunekin euskaraz gaztelaniaz bezainbat aritzen zirenak, euskalduna izateko euskara jakitea zertxobait beharrezkoa dela uste zutenak, beren burua euskal herritar adina espainiar sentitzen zutenak eta euskal kultura euskaraz eginikoa dela baina baita gaztelaniaz eginikoa ere izan daitekeela esaten zutenak	51
Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engeiatugabea	Gaztelaniaz euskaraz baino erosoago aritzen zirenak, guraso, lagun, Whatsappen eta ezezagunekin beti gaztelaniaz aritzen zirenak, euskalduna izateko euskara jakitea beharrezkoa ez dela uste zutenak, beren burua euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar baino espainiarrago sentitzen zutenak eta euskal kultura euskaraz ez ezik gaztelaniaz eginikoa ere izan litekeela uste zutenak	51

Iturria: Egileek egina.

Beraz, taulan azpimarratutako hiru ikasle kategoria edo profil hauek hartu izan dira aintzat ere 2. mailan, *EOSKOLA* liburuaren bueltan egindako zereginean, alegia, liburua irakurri eta gero ikasleei pasatutako galdeketen erantzunak interpretatzeko, nahiz eta artikulua honetarako Haur eta Lehen Hezkuntzako 22 ikasleren erantzunak bakarrik erabiliko diren aztergai.

4.3. Galdetegia eta euskarri digitala

Esan bezala, goian adierazitako helburuekin bat, zortzi galdera diseinatu dira, euskararen eta euskal kulturaren gainean, aurretik ikasleek irakurritako *EOSKOLA* liburuan oinarrituta:

1. Margaret Meadek transmisioa egiteko aipatzen dituen hiru kulturei erreparatuz, eta euskal kulturaz ari garela, jakin nahi dugu zuk zeuk zer euskal kultura jaso ote duzun, eta, hala baldin bada, norengandik jaso duzun (familia, gurasoak, lagunak, eskola, norberaren interesetik abiatuta...).
2. Zure ustez, nolakoa da jaso duzun euskal kultura? (hutsala, urria, nahikoa, aberatsa...). Eman iezaiozu nahi duzun adjektiboa eta azal ezazu zein bizipen izan duzun transmisio horrekiko. Eman itzazu adibideak.
3. Urangak aldarrikatzen du (92. or.) nerabe eta gazteek ezin dutela berez eta bat-batean ikasi gizakiak milaka urtetan zehar sortu eta egindakoa; eduki horiek eskaini behar zaizkie nahitaez, eta, horrenbestez, oinarri akademikoa, ezagutzen transmisioa, ezinbestekoa bilakatzen da. Euskal kulturari dagokionez, zure ustez lagunek, gertukoek... jaso dute euskal kultura? Eta zuk?
4. Urangak, bestalde, aldarrikatzen du irakasleak artista izan behar duela (98. or.). Artista-izaera horretan euskal kulturak izan behar al du lekurik? Nola hautematen duzu euskal kulturaren transmisioa heziketa-sistema honetan? Eskolaldiko bizipenak aintzat hartuta, bermatuta ikusten duzu kulturaren eta identitatearen transmisioa? Eta HUEZIn, nola ikusten duzu?
5. Urangaren hitzetan, irakasle-artistak autoritatea izan behar du nahitaez (100. or.); hau da, sozialki aitortutako jakintza izan behar du. Euskal kulturaren arloan irakasle-artista autoritadeduna izateko, zer egin beharko zenuke zuk? Izan zaitezke zure etorkizuneko ikasleen aholkulari euskal kulturari buruz duzun ezagutzarekin? Jarri adibideak.
6. Nola ikusten duzu euskal kulturaren osasuna gaur egun? Zergatik?
7. Zure ustez, atzean geratu da euskal kultura? Euskara eta euskal kultura atzerakoi eta oztopo izateraino? Zergatik?
8. Nola aurreikusten duzu etorkizunari begira euskal kultura? Baliagarri izan ahal da euskal kultura Urangak aldarrikatzen duen eskola artistikorako (81.-115. or.)? Ba al du nahikoa estrategia eta baliabide etorkizunari aurre egiteko?

Ikasle guztiek *Google Forms* bidez galdera hauei erantzuteko gonbita jaso zuten. Googleren formularioek aukera ematen dute ekitaldiak planifikatzeko, inkesta bat bidaltzeko, ikasleei galderak egiteko edo beste informazio mota batzuk modu erraz eta eraginkorren biltzeko.

Guztira, Haur eta Lehen Hezkuntzako 170 ikaslek erantzun zioten galdetegiari. Arestian aipatu berri izan dugun lez, datuen azterketarako baina, 2016-2017 ikasturtean ikasleak hiru tipologiatan banatutako profil ezberdinetako ikasleen sailkapena kontuan izanik egin da 2017-2018 ikasturtean pasatutako galdetegia, baina artikulua honetarako erantzunen analisi finagoa egiteko asmoz, Haur eta Lehen Hezkuntzako 22 ikaslek emandako erantzunak aztertu dira: lehen ikasle-profilari dagokionez («euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua»), 9 erantzun; bigarrenari («erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea»), 6 eta, hirugarrenari «elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea», 7.

4.4. Datuen tratamendua, analisia

Ateratako datuen tratamendurako ez da software berezirik erabili, baizik eta eskuz landu dira arestian esandako ikasle-tipologia bakoitzak emandako erantzunak, galderen erantzunen deskripzio soilak eginez.

5. EOSKOLA Galdetegia. Emaitzak eta analisia

Hala, hiru hizkuntza-profiletan banatu diren ikasleek emandako erantzunetatik ateratako ideiak ikerketa-helburuekin gurutzatu eta multzokatu dira.

Galdetegiaren ondorioak aztertzeko ezinbestekoa dugu galdetegi honen helburuak berriro aipatzea; izan ere, jakin nahi izan dugu: (1) *Euskal kulturaren transmisioa nola hautematen duten gure ikasleek eta nolakoa izan den transmisio hori haien inguru hurbilenean, ahuluneak eta indarguneak identifikatuz.* (2) *Hezkuntza-sisteman nola hautematen duten euskal transmisioa; egindako ikasketetan, euskal kulturaren transmisioan norbanakoaren egoera eta erronkak zeintzuk diren identifikatuz, batez ere euskararen eta euskal kulturaren transmisio horretan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateak nola eragin duen hausnartuz.* (3) *Norbanakoak nola ikusten duen transmisio horretan bere burua eta etorkizunari begira euskal kulturaren transmisioak nahi besteko estrategia eta baliabide ote dituen hausnartzea.* (4) *euskara eta euskal kulturarekiko izan lezaketen ikuspegi atzerakoia ala aurrerakoia den hautematea.*

Helburuak, beraz, aintzat hartuta, hauek dira adierazitako galderen analisitik ateratako konklusioak:

1. *Euskal kulturaren transmisioa nola hautematen duten gure ikasleek eta nolakoa izan den transmisio hori haien inguru hurbilenean, ahuluneak eta indarguneak identifikatuz:*

- «Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua» taldekoen artean kultura-transmisio postfiguratiboa da nagusi. Familiak eta eskolak, batak zein besteak baldin badute berebiziko garrantzia, familiara gailentzen da. Aldi berean, euskal kulturaren transmisioa aberatsa dela diote. Pribilegiatuak sentitzen dira bai familia euskaldunetan jaio direlako baita herri euskaldunetan jaio edota bizi direlako ere. Beraz, bai eurek baita gertukoek ere jaso dute euskal kultura.
- «Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, berriz, eskolak du berebiziko garrantzia. Bide batez, herria kokatuta dagoen eremu soziolinguistikoak (euskaldunagoa ala ez izan) eragina dauka transmisio-mailan. Hala ere, urritasuna azpimarratzen da bai familian baita eskolan ere. Baina minimo bat aitortzen da, eta horren «errua» eskola da.
- «Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, familiak eta eskolak garrantzi bera baldin badaukate ere, lagunek nahiz norbanakoaren interesek ere badute presentzia. Beraz, kultura-transmisio kofiguratiboa eta aurrefiguratiboa nahasten dira. Aldi berean,

nahikotasuna da gailentzen dena, baita eremu euskaldunenak diren herrietan ere. Minimo bat aitortzen da hemen ere, baina zalantza batzuk ere agertzen dira, transmisio horren egokitasunaz zein nahikotasunaz.

2. taula. Lehen helburuarekin eta hizkuntza-profilarekin loturiko zenbait ikasleren esanak.

- «Nire familiarengandik jaso dut euskal kultura. Nire familia oso euskalduna da, beraz, oso giro euskaldunean bizi izan naiz. Lagunei eta herriari eta nire inguruan dagoen beste guztiaren inguruan ere, dena oso euskalduna da, asko bultzatzen da euskara eta euskal kultura, eta oso zaila da gaztelera entzutea».
- «Batez ere nire aitaren eta familiaren parte horretatik. Hizkuntza, historia eta abesti zahar eta ohiturak bere partetik etorri egin dira. Batez ere txikitik, historia ohitura eta abesti zaharrak batez ere, horiek baitziren nik gehien gogoko nituenak. Eskolan ere jaso izan dut baina gehiengo nire aitaren partetik izan da».
- «Nire familian euskara txikitatik jaso izan dut etxean. Aitaren partetik familia Goizuetakoa da eta euskalduna jatorriz beraz. Amaren partetik aldiz, familia ez da euskalduna baina gaztetan murgildu zen euskal kulturaren eta euskara ikasi zuen. Horrela, anaia eta biak euskaraz hazi gara, etxean eta baita herrian ere. Eskolan eredu ezberdinetan ibili naiz eta zenbait urtetan ere euskaraz ikasi izan dut».

Iturria: Egileek egina.

2. Hezkuntza-sisteman nola hautematen duten euskal transmisioa; egindako ikasketetan, euskal kulturaren transmisioan norbanakoaren egoera eta erronkak zeintzuk diren identifikatuz; euskararen eta euskal kulturaren transmisio horretan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateak nola eragin duen hausnartuz:

- «Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua» taldekoen artean, eskolak, hezkuntza-sistemak bermatu beharko luke transmisio hori, baina badaude aldagai batzuk aintzat hartu beharrekoak transmisio hori orekatua eta kalitatezkoa izan dadin. Alegia, ikastetxea zer eremu soziolinguistikotan kokatuta dagoen eta irakasleak zer prestakuntza-maila duen. HUHEZIk egiten duena ondo balioesten bada ere, bada ahots kritikoren bat hizkuntzaren (euskararen) irenspena salatu nahi delako.
- «Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, erresistentzia batzuk hautematen dira, nahiz eta HUHEZIk transmisioan duen funtzioa ondo balioetsi. Badirudi batzuetan-edo «behartuta» ere sentitzen direla (bai HUHEZIk baita hezkuntza-sistemak ere hala behartuta) euskara ezagutu eta erabili behar delako.
- «Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, inpresioa da ez ote den gero eta urriagoa transmisioa eskoletan. Agian irakasleen formazio urriak ere badauka horretan eragina. HUHEZIk egiten duenaz aitortza ona jasotzen badu ere, agian gehiago egin dezakeela azpimarratzen da.

3. taula. Bigarren helburuarekin eta hizkuntza-profilarekin loturiko zenbait ikasleren esanak.

- «Egia esanda ez dut ongi ikusten, gero eta gaztelania gehiago entzuten baitut nire herrian umeen ahotsetatik. Hori gutxi balitz jende askok dio euskara eta euskal kulturak beraientzat garrantzi handirik ez duela, gaztelaniarekin komunikatzeko gai baitira. HUHEZIn ikusten dut ahalegin bat badagoela baina irakasleen partetik gehien bat, gero badaude ikasle batzuk ere euskal kulturari garrantzia ematen diotenak. Ikustea besterik ez dago gelan gaudenean denak esaten dugula euskarari garrantzia eman behar zaiola eta gelatik irteteen jende gutxik pentsatzen du euskaraz eta bat-batean ahaztu egiten zaie. Beraz ikusten dut ez daukala oso egoera ona».
- «Oso garrantzitsua iruditzen zait euskal kulturaren transmisioa hezkuntzan azken finean bizi garen lekuko kultura baita, baina, oso garrantzitsua ikusten dut ere beste hainbat kultura ere lantzea gaur egungo kulturekiko aniztasuna dela eta. Egia da bakoitzak erabaki behar duela zein kulturarekin identifikatu eta zein hizkuntza hitz egin eta nire ustez, gaur egun euskarari gehiegizko garrantzia ematen ari zaiola eta ondo iruditzen zait baina ez zait bidezkoa iruditzen hau hitz egitera behartzea edota edozein lanposturako hain maila handia izatea exijitzea. HUHEZIn, euskara kultura asko nabarmentzen da eta ondo iruditzen zait, hala ere, gaztelaniari garrantzia gutxiegia ematen zaiola iruditzen zait».
- «Euskal Herriko eskoletan euskal kulturak lekua edukitzea ezinbestekoa iruditzen zait. Gaur egungo sistemari dagokionez, euskal kulturak garrantzia gutxi duela iruditzen zait, askoz ere denbora eta jarduera gehiago egin beharko litzateke euskal kultura, gaur egungo haurren parte izateko. HUHEZIn, euskal kultura transmititzeko ekimen handia dagoela uste dut».

Iturria: Egileek egina.

3. Norbanakoak nola ikusten duen transmisio horretan bere burua eta etorkizunari begira euskal kulturaren transmisioak nahi besteko estrategia eta baliabide ote dituen hausnartzea:

- «Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua» taldekoen artean, jarrera baikorra antzematen da transmisiorako, konpromisoak hartzeko prest, baina aldi kontzientziatuaren beharra ere badagoela aitortzen dute. Bide batez, etsipena eta ezkortasuna dira etorkizuna aipatzean gailentzen direnak. Horri aurre egiteko familia eta eskola jotzen dira bitartekari apartak.
- «Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, sustatu beharra dagoela ez da zalantzan jartzen, baina behartu gabe horretarako inor. Aldi berean, hezkuntza-prozesua indartzea, haurrek bizipen positiboak izatea, baliabide gehiago eskaintzea izan daitezke bitartekari onak etorkizun ez hain oparoari aurre egiteko.
- «Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, transmisiorako gaitasunik eza adierazten da; hutsunea eta ezintasuna, baina ahuleziatik ateratzeko euskal kultura, estrategia eta baliabide gehiagoren beharra errebindikatzen da.

4. taula. Hirugarren helburuarekin eta hizkuntza-profilarekin loturiko zenbait ikasleren esanak.

- «Nik honetarako euskaraz mintzatzea bultzatuko nuke egunerokotasunean eta honi konstantzia ematea. Baita ere, inguruan dugun euskal musikaren inguruan ondo arituko nintzen hitz egiten eta honen inguruan ere defendatuko nintzateke».
- «Hori sustatzea beharrezkoa ikusten dut, baina modu oso-oso natural batean. Euskal kultura eta historiarekin erlazioa duten ipuinekin, noizean behin abestiekin. Egunerok gertatu behar den zerbait ikusten dut, normalean egiten den gauza bakarra Euskara egunean ekintzak egitea izaten delako, eta horrek bakarrik ez du ezer transmititzen. Ez dut inor behartu nahi hori jasotzera berak propio sentitzen ez badu».
- «Nire ustez ni ikasleen eredu izateko orduan, euskal kulturari dagokionez, nire ezagutzak ez dira nahikoak edo behintzat gehiago osatu beharko nituzke, nire ustez jaso dudak kultura aberatsa dela baina nire bizi modurako, ez transmisio osatu bat bermatzeko. Hizkuntzari dagokionez ondo ikusten dut nire burua eta kulturalki nolabaiteko oinarria dut baina beharrik historia, mitologia, musika... alderdi hauei buruz gehiago aztertu beharko nuke».

Iturria: Egileek egina.

4. Euskara eta euskal kulturarekiko izan lezaketen ikuspegia atzerakoia ala aurrerakoia den hautematea:

- «Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua» taldekoen artean, kezka eta iritzi ezkorrak adierazten dira. Atzean geratu da euskal kultura; batzuetan hizkuntza (euskara) oztopo ere bihurtuz.
- «Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, iritzi bera dute: ezkortasuna eta kezka. Ez da hainbeste oztopo, baina atzean geratzen ari da euskal kultura (edo garrantzi gutxiagorekin).
- «Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea» taldekoen artean, beste hainbeste: ezkorra da. Atzean ez, baina moteldu da.

5. taula. Hirugarren helburuarekin eta hizkuntza-profilarekin loturiko zenbait ikasleren esanak.

- «Atzean gelditu dela uste dut. Gauden puntuan egonik, euskarazko titulu bat atera behar dugu euskara dakigula erakusteko, euskal herrian bizirik. Hori ez da inon egiten. Titulu hori zerbait beharrezkoa iruditzen zait baina pena ematen dit».
- «Gaur egun dagoen eskaintzaren aldetik bai gelditu da atzeratuta. Egia esanda entretenimendu aldetik musika edo telebista saio zehatz horiek gustuko ez dituenak horretatik kanpo gelditzen da. Azkenean ez dago nondik aukeratu, beraz beste batzuetara jotzen dugu».
- «Ez, ez da atzean geratu. Oraindik ere euskal kultura bermatzen da, baina egia da geroz eta erdara gehiago entzuten dela kalean, eskolan, unibertsitatean...».

Iturria: Egileek egina.

6. Aurrera begirakoak

Ikasleen erantzunetatik jasotako informazioak garamatza hainbat proposamen egitera:

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik ondorio hauek begiratu eta aztertuta, iruditzen zaigu 1) hizkuntza-konpetentzia (euskara), diziplina-konpetentzia izateaz gain, oinarritzko zehar-konpetentzia ere izanik, gure hezkuntza-ereduaren zutabe nagusi bezala tratatua izan beharko litzatekeela. Hala, berariaz ez soilik hizkuntzaz ari diren irakasleak, baizik eta gainerako arloetakoek ere jarraitu eta aintzat hartu beharrekoa ikasleekin martxan jarritako ikasketa-prozesuetan. Irakaslearen profilarekin bete-betean lotuta baitago komunikazio-gaitasuna, ahoz zein idatziz, eta horren lanketarako berariazko helburuak finkatzea, planifikatzea eta metodologia berriak txertatzea beharrezkoa baino areago, ezinbestekoa da. Eta zeregin horretan begirada ez soilik eremu formalari jarritz, baizik eta ez-formalean ematen direnei ere.

Beste hainbeste esan genezake euskal kulturaren tratamendu eta transmisioarekin. Ekintza edo zeharkako aipamenetatik at, curriculumaren ardatza izan behar litzatekeelako. Eremu guztiei erreparatuz, baita gelatik kanpo ere, osagarri edo aisialdi gisa egiten diren jardurekin.

Hori guztia lortzeko lehen urratsa, zalantzarik gabe, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan datza. Orain arte aipatu dugun euskal dimentsioaren definizioa hutsean geratzeko arriskua dauka, ez bada, hasteko, zehazten, eta ondoren irakasleen prestakuntzan edo irakaskuntzan darabiltzagun baliabideetan txertatzen. Gure curriculumaren hirugarren zehaztapan-maila da altuena, gelara eramaten gaituena, eta azkenean irakaslea da curriculuma zehazten duena ikasgelan. Bere gain dago gelako eguneroko irakaskuntzaren erantzukizuna; izan ere, berak saioak prestatu, garatu, materialak aukeratu eta behar denean sortu ere egingo dituelako. Beraz, egoera honen aurrean garrantzi handikoa da Euskal Herriari buruzko edukiek irakasleen prestakuntzan lekua izatea, beren funtzioa eta bereziki kontzientzia hartzen joan dadin. Funtsezkoa da, beraz, gure ustetan, euskal dimentsioari berebiziko arreta jartzea, ikasleengana helaraziko badugu.

Maisu-maistren prestakuntzan ari den irakasleriak —ez dakielako edo ez duelako horren beharrizanik ikusten— ez du testuinguruan jartzen irakasten duen diziplina. Prestakuntza horretan ari direnengana heltzea funtsezkoa ikusten dugu, beraz, euren gaietan, era batera edo bestera, testuinguru hurbilarekiko lotura irakastea nahi bada. «Gai edo diziplina guztietan agertu behar litzateke *euskal dimentsio espezifikoa*, bakoitzari dagokion eran eta neurrian, ikaslea eta inguruaren arteko lotura eraiki edo garatu nahi bada» (Bilbao, Erriondo, Garagorri, Idiazabal eta Iztueta, 2003: 11-12).

Erreferentzia bibliografikoak

- Allieu-Mary, N. eta Frydman, D. (2003): «L'enseignement du patrimoine et la construction identitaire des élèves», *Les Cahiers. Innover et réussir*, 5, 48-54.
- Amonarriz, Kike (2017): «A las y a los no vasco-parlantes», *HERMES*, 57, 42-44.
- Azkarraga, J. (2010): *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa. Zenbait gogoeta, Gizabidea Fundazioaren hausnarketa estrategikorako*, LANIKI-HUHEZI, Eskoriatza.
- Bauman, Z. (2001): *La posmodernidad y sus descontentos*, Akal, Madril.
- Baxok, E.; Etxegoin, P.; Lekunberri, T.; Martínez de Luna, I.; Mendizabal, L.; Ahedo, I.; Itzaina, X. eta Jimeno, R. (2006): *Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Bilbao, B. (2003): *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Bilbao, B.; Erriondo, L.; Garagorri, X.; Idiazabal, I. eta Iztueta, P. (2003): *Euskal dimentsioa curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*, <<http://www.euskalcurriculumea.eus/eu/node/29>>.
- Calaf, R. (2009): *Didáctica del patrimonio. Epistemología, metodología y estudio de casos*, TREA, Gijón.
- Castells, M. (1999): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madril.
- Correa, M.J. (2003): «Consideración didáctica de la noción de patrimonio cultural y enseñanza. A propósito de la identidad», in E. Ballesteros, C. Fernández, J.A. Molina eta P. Moreno, P (koord.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales*, AUPDCS-Universidad de Castilla la Mancha, Cuenca.
- Coulon, C. (2005): *Penser les questions identitaires en ce début de XXIème siècle: Quelques hypothèses de travail*, Institut Cultural Basque-Euskal Kultur Erakundeak antolaturiko hitzaldia, 2005/09/16, Baiona (argitaratu gabea).
- Delors, J. (1996): *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la educación para el siglo XXI*, Santillana, Madril.
- Díaz de Balardi, I. (2008): *La memoria fragmentada. El museo y sus paradojas*, Ediciones TREA, Gijón.
- Diputació de Barcelona (ed.) (1998): *Declaración universal de derechos lingüísticos*, Institut d'Edicions de la Diputació de Barcelona, Bartelona.
- Ezkurdia, G. (2004:33): *Identitatea eta ingurunea curriculumean* [Doktorego-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Freixa, C. (2016): *Escuela y cultura juvenil: de la comunidad escolar libre al aprendizaje en red*, <<http://revistametamorfosis.es/index.php/metamorfosis/article/view/34>>.
- Gurrutxaga, Ander (2017): *Rutas nacionalistas. La sociedad vasca en el siglo XXI*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Hofstede, G. (2012): «Culturas nacionales, culturales, organizacionales y el papel de la gestión empresarial», in elkar lana, *Valores y Ética para el siglo XXI*, Ed. BBVA, Madril, 413-434.
- Iztueta, I. (2015): *Cultura vasca vs. Euskal kultura*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- , (2017): «Euskal hizkuntza eta kultura», *Eusko Folklorearen urtekaria*, 51, 17-53. Biblioteca Nueva, Madril.
- Lauzurika, A. (2016): «Ekinez nor izateko, euskal curriculum», *Jakingarriak*, 75, 16-32.
- Mckernan, J. (1999): *Investigación-acción y currículum*, Morata, Madril.
- Odrozola, J.M. (2017): *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Elkar, Donostia.
- Pellicer, C. (2019): «Y si se pierde la memoria...», *Cuadernos de Pedagogía*, 495, 3-5.
- Ramírez de Okariz, I. (2014): «Gertuko kultura ondarea eta identitatea», *TANTAK*, 26 (1), 41-55.

- , (2018): «Elkarrizketa: Mitxelko Uranga. Heziketa hipermoderno eta transmisioa», *Jakingarriak*, 77, 50-55.
- Ramirez, M.C. (1996): «Brokering Identities. Art Curators and the Politics of Cultural Representation», in G. Greeberg, B.W. Ferguson eta S. Nairne (ed.), *Thinking about Exhibitions*, Routledge, Londres eta New York.
- Ruiz, C. (2004): «El papel de la familia en la transmisión sociocultural y de la salud mental», *Nómadas*, 9, 9.
- Uranga, M. (2017): *Eoskola. Heziketa hipermoderno*, Pamiela, Arre.
- Uriarte, M. (2020): *Hizkuntza-Ideologia*, <<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-ideologia/ar-152150/>>.
- Valverde F.; Sequeiros, C eta Loma, M. (2001): «La ciudad y el patrimonio urbano como forjadores de identidad», in: J. Estepa, F. Frieria eta R. Piñeiro (ed.), *Identidades y Territorios. Un reto para la didáctica de las Ciencias Sociales*, KRK ediciones, Oviedo.
- Zalbide, M. (2016): «Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak», *BAT aldizkaria*, 100, 10-192.

